



Gasteizko auzoen bizigarritasun-neurgailua

AUZOEN DIAGNOSTIKOA

2016ko azaroa



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socioeconómico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque



Babeslea:
Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

0. AURKIBIDEA

0.	AURKIBIDEA	1
1.	SARRERA	2
2.	ONDORIO NAGUSIAK	3
3.	AUZOAK ETA VITORIA-GASTEIZKO EGITURA	16
4.	HIRI MORFOLOGIA	17
4.1.	KONTZEPTUA	17
4.2.	HIRI MORFOLOGIAREN AUZO RANKINGA	18
4.3.	HIRI MORFOLOGIAREN DIAGNOSTIKOA	19
5.	ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNA	22
5.1.	KONTZEPTUA	22
5.2.	ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN AUZO RANKINGA	23
5.3.	ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN DIAGNOSTIKOA	24
6.	MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	28
6.1.	KONTZEPTUA	28
6.2.	MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN AUZO RANKINGA	29
6.3.	MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN DIAGNOSTIKOA	30
7.	METABOLISMO DEMOGRAFIKOA	34
7.1.	KONTZEPTUA	34
7.2.	METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN AUZO RANKINGA	35
7.3.	METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN DIAGNOSTIKOA	36
8.	GIZARTE KOHESIOA	41
8.1.	KONTZEPTUA	41
8.2.	GIZARTE KOHESIOAREN AUZO RANKINGA	42
8.3.	GIZARTE KOHESIOAREN DIAGNOSTIKOA	43
9.	ERANSKINA: AUZOEN MUGAK	48

1. SARRERA

Txosten honek Vitoria-Gasteizko auzoen gaineko iraunkortasun neurgailuaren emaitzak aurkezten ditu. Lan hau “Hiri-Auzoak, Euskal Herriko hiriburuetako auzoen iraunkortasun neurgailua” izeneko proiektuaren baitan garatutako metodologia baliatuz egin dugu.

Proiektu esperimentala da hau eta bere xedea Europan zein mundu mailan gero eta indar handiagoa duen hirietako iraunkortasun paradigmatikari erantzun dion neurgailu bat eraikitzea da, kasu honetan Vitoria-Gasteizko auzoen iraunkortasunari dagokiona. Izan ere, egun hiri eta auzoetarako neurtzen diren dimentsioak hainbat dira, baina ez dago iraunkortasunaren paradigma aintzat hartuz eraikitako neurgailurik

Iraunkortasun kontzeptua, indartsua izan arren, ibilbide metodologiko eta epistemologikoa du egiteko oraindik, are gehiago euskal kasuan. Gauzak horrela, proiektu honen xedea auzoetako iraunkortasuna neurtu ahal izateko marko kontzeptual eta metodologiko esperimental bat garatzea izan da, hurrengo urtetan denon artean osatu eta hobetu beharko duguna. Alde horretatik, esan beharrekoa da, neurgailuak baduela aski oinarri teoriko eta metodologiko. Ez dago, ordea, euskal eragile sozial eta instituzionalen artean adostua.

Lan honen emaitzak, beraz, har bidez proiektu esperimental moduan eta inola ere ez, aurretik egon daitezkeen beste azterlan edo indizeekiko dikotomian. Izan ere, paradigma kontzeptual berriek bide luzea behar izaten dute behar den eraginkortasuna lortzeko, besteak beste, adostasun sozio-politikoa.

Auzo eta datu bolumena handia den aldetik hemen, emaitzen sintesia egiten ahalegindu gara irakurleak ariketak utzitako argazki nagusia eskura dezan. Datu xeheak www.auzoak.eus webgunean topatu daitezke eta azalpen metodologikoak proiektu honen gainerako txostenetan.

2. ONDORIO NAGUSIAK


a) Azken hamarkada, 1980az geroztiko morfologia eraldaketa handiena

Vitoria-Gasteizek 27.634 hektareako azalera dauka¹. Tamaina horren dimentsioaz jabetzeko, azalera hori Bilbokoa baino zazpi bider handiagoa da, edo Donostiakoa baino ia bost bider handiagoa. Euskal Herriko gainontzeko hiriburuetan ez bezala, inguruan dituen landa eremuak administratiboki hiriburuari dagozkio eta horrek Iruñerrian bezalako gerriko urbano bat sortzea galarazi du. Vitoria-Gasteiz hazkunde monozentrikoaren eredua da.

Lautada baten erdian kokatua dagoenez, Vitoria-Gasteizek erosotasun orografiko handia dauka. Honetan ere, euskal hiriburuaren artean Vitoria-Gasteizko kasua singularra da. Eraikinen adina hiri-hazkunde monozentrikoaren aztarna garbia da, Alde Zaharreko muinoaren inguruan egun *urrezko auzoak* osatzen duten hiri-gerrikoa hedatzen delarik. 1980 urtetik aurrera eraikitako eraikin eta auzo gehienak, aldiz, hiri ingurabidetik kanpo kokatzen dira (irudian, urdinez marraztua)². Hiri ingurabidetik kanpo 1960. hamarkadan zehar garatutako auzoak dira Ariznabarra, Abetxuko eta Errekaleor, errenta txikiko herritarren beharrei edota txabolismoa ekiditeko emergentzia gisara garaian eraikitakoak.

¹ 2015 urtea. Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

² *Cuaderno de trabajo 6: Análisis y caracterización de los barrios residenciales* (2012). Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala.



1980 urtetik aurrera Vitoria-Gasteizko hiri corpusaren handitzean bi inflexio puntu daude. Alde batetik, 80ko hamarkadan hiri-hazkundera iparraldetik hasten da, eta horrela, pixkanaka Arriaga Lakua auzoa egituratzen da. Bestetik, Vitoria-Gasteizko morfologiaren eraldaketa sakonagoa 2000. milurtetik aurrera dator, lehenik ekialde eta mendebaldean lur berrien urbanizazioarekin (Salburua eta Zabalgana), ostean hegoaldean ere (Aretxabaleta Gardelegi). Hegoaldeko hazkunde hau, oraindik ere, martxan da.

b) Hiri-trinkotasun lausoa Mendizorrotza, Salburua eta Zabalganan

Hiri-trinkotasunari dagokionez, esan beharra dago Alde Zaharraren gerriko zabala osatzen duten auzoek biztanleria eta etxebizitza dentsitate oso aproposak dituztela, ondorioz lurraren erabilera mugatu egiten dute eta zerbitzuen eskaintza zein mugikortasun azpiegituren eraginkortasuna erraztuz. Horren adibide dira, besteak beste, Coronacion, Alde Zaharra, Anglo, Judimendi edo Pilar auzoak, 120 etxebizitza/Ha-tik gorako etxebizitza dentsitatearekin.

Baina badira hiri-trinkotasun nahikoa ez duten auzoak ere. Kasu aipagarriena Mendizorrotza auzoa da (7,7 etxebizitza/Ha) urbanizazio egitura duelako, baita izaera bereziko auzoetan (Ali Gobeo eta landa eremua). XXI. mendetik aurrera sortutako Salburua, Zabalgana eta Aretxabaleta Gardelegi auzoetan ere biztanleria eta etxebizitza dentsitatea behar baino txikiagoa da. Auzo berrietan hiri-trinkotasuna lausotu izanak ondorioak ditu esparru desberdinetan, baita bertako zerbitzuen eskuragarritasunean edo herritarren mugikortasunean, ere, ikusiko dugun moduan.

c) Espazio berdeen presentzia handia, argi-ilun batzuekin

Hiri-trinkotasuna bezain garrantzitsua da espazio ireki eta berdeen presentzia. Herritarren bizigarritasun egoki baterako, garrantzitsua da auzoetan hiri-trinkotasuna eta espazio berde eta irekien arteko oreka egotea. Ezaugarri urbanistiko historikoak medio, Alde Zaharrak gunen berdeen gabezi handia dauka, baina Coronacion, Anglo, Pilar edo Santiagon ere espazio berdeen gabezia nabaria da. Ez da garai hartako edo lehenagoko auzo guztietan bizi den egoera, Adurtza, Abetxuko edo Gazalbidek espazio berde handia baitute (37 m²/biztanletik gorakoa). Auzo berrietan ere espazio berdeen presentzia bermatuta dago.

d) Vitoria-Gasteiz, uholde arriskuen aurrean kalteak minimizatzeko egoeran

Vitoria-Gasteizko hiri morfologian azpimarratzekoa da, gainontzeko euskal hiriburuetan ez bezala, balizko uholdeen arrisku txikia. Auzo gehienetan ez da sikiera inundagarritasun arriskua existitzen. Abetxukon dago inundagarritasun arrisku handiena, bere azaleraren %31,5a uholde arriskupean da Zadorra ibaia medio. Dena dela, Zadorrako arroak hiri kongestio txikia dauka eta balizko uholdeen aurrean eta hiri barruan egon arren, kalteak txikiagotzeko orube egokia dauka. Arriaga Lakua (%20,6), Ipar mendebaldeko landa eremua (%11,6), Lovaina (%5,7), Ekialdeko landa eremua (%4,3) eta Salburua (%3,7) dira noizbait uholdeak pairatu dezaketen beste auzoak. Esan bezala, azalera txikiak daude uholde arriskupean.

e) Vitoria-Gasteizko auzoetako zerbitzuen eskuragarritasuna, Euskal Herrian eredu

Vitoria-Gasteizko auzo gehienetan zerbitzu desberdinetara dagoen gertuko irisgarritasuna oso garrantzitsua da. Nabarmentzekoa da hiri ingurabide barruan kokatuta dauden auzoetan zerbitzuen eskuragarritasun maila ona, baina gainontzeko auzoetan ere zerbitzu gehienek estaldura garrantzitsua daukate. Euskal Herriko gainontzeko hiriburuetako zerbitzuen eskuragarritasuna ez da hain handia, eta are gutxiago, Vitoria-Gasteizko auzoetan barrena bezain homogenea.

Vitoria-Gasteizen estaldura handieneko zerbitzua kirol azpiegiturak dira. Hiriko 30 auzotatik 22tan, kirol azpiegituren 600 metroko eremu funtzionala dela kontuan hartuta, auzoaren %90tik gorako azalerari ematen diote zerbitzu aproposa. Presentzia hau zertxobait eskasagoa da Ali Gobeon, Adurtzan eta Aretxabaleta Gardelegin. Liburutegi eta kultur azpiegituren estaldura apalagoa da baina oso garrantzitsua auzo gehienetan. Edonola ere, Zabalganan, San Martinen, Zaramagan edo Adurtzan azpiegitura hauen estaldura beste auzo gehienetan baino txikiagoa da.

Osasun azpiegituren gertutasunari dagokionez, auzo guztiek osasun azpiegitura propioa ez eduki arren argazki orokorra ona da. 15 azpiegitura hirian barrena sakabanatuta daude. Hiri-trinkotasun txikia osasun azpiegiturak herritar ororen eskura jartzeko ozttopoa da, Mendizorrotza, Abetxuko, Salburua edo Zabalganan esaterako. Kasuistika hau alde batera, osasun azpiegituren gertutasuna apala da Adurtzan, Sansomendin, Santa Lucian edo Arriaga Lakuan.

Haur eta lehen hezkuntzako zentro publikoen estaldura mailak oso antzerakoak dira. Auzo gehienetan gertu dira bi azpiegitura mota hauek. Zerbitzu hauen gertutasunak hutsune txiki batzuk dauzka Ali Gobeon, Mendizorrotzan eta Zabalgunean, auzoan bertan ez baitago haur zein lehen mailako hezkuntza zentro publikorik. Adurtzan, Arriaga Lakuan edo Salburuan, ordea, biak daude baina hauen gertutasuna ez dago auzo osoan bermatuta. Egoera, halere, ez da inondik inora larria. Baina zerbitzu hauen gertutasuna auzoen bitalitatea eta dinamismoa bermatzeko ezinbestekoa da, bizilagunek eguneroko aktibitateak bertan egiteko aukera eskaintzeari begira eta ibilgailu pribatuari loturiko mugikortasun joerak ere gutxitzeari begira.

Haurrentzako jolaslekuen presentziari erreparatuta, auzoen artean aniztasun handiagoa da. Haurrentzako jolaslekuen estaldura orokorra handia izanik ere, hainbat auzotan nabari dira hutsune

batzuk. Aretxabaleta Gardelegi, Santiago, Ali Gobeo, Adurtza, Mendizorrotza edo Gazalbiden haurrentzako jolaslekuek eskaintzen duten gertuko estaldura ez da bereziki indartsua. Egia da, ordea, geroago ikusiko dugun moduan, hauetako zenbait auzok haurren presentzia urria dutela.

f) Hiri-trinkotasun txikiko auzoetan zerbitzuen estaldura ahulagoa

Hirien eguneroko jardueran erabilitako energia eta material desberdinen bolumena gero eta handiagoa da. Hori dela-eta, hiri-metabolismoa eta iraunkortasunaren ikuspegitik, materialen zikloak ahalik eta luzeenak eta berriztagarrienak izateko bitartekoak inplementatu behar dira eta ezinbestekoa da hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklatzea. Zentzu horretan, zaborren sailkapenerako edukiontziek ematen duten zerbitzua bikaina da Vitoria-Gasteizko hiri nukleo osoan.

Oro har, zerbitzuen estalduraren nolakotasuna ez dago auzoen adinarekin bereziki harremanean. Oinarrizko zerbitzuen estaldura apalagoa duten auzoak hiri-trinkotasun txikikoak dira, izan ere, barriadurak azpiegituren gertutasuna behar lukeen bezain eraginkorra ez izatea eragiten du. Hau oso garbia da Mendizorrotzan edo landa eremuko Vitoria-Gasteizko bi auzoetan. Hauxe bera gertatzen da egun Salburua, Zabalgana eta Aretxabaleta Gardelegi auzo berrietan. Azken honetan, zerbitzuen eskaintza osatzeke dago oraindik. Zabalganan gizarte-etxearen eraikuntza martxan da, baina hiri-trinkotasun ahulak gertutasunak sortuko lukeen eraginkortasuna ahultzen du.

g) Garraio publikoaren irisgarritasuna oso handia da, bikaina hiri ingurabide barruko auzoetan

Vitoria-Gasteizko auzo gehienek mugikortasun eskaintza iraunkor bat dute. Hiria osatzen duten 30 auzoetatik 24 auzok 7,5tik gorako puntuazioa dute. Mugikortasun iraunkorraren neurgailuan gainditzen ez duten auzoak hiru dira: Ipar mendebaldeko landa eremua, ekialdeko landa eremua eta Aretxabaleta Gardelegi. Neurri handi batean ez da harritzekoa oraindik osatu gabeko Aretxabaleta Gardelegin eta landa eremuan hala izatea. Landa eremuaren mugikortasun iraunkorra bertako ezaugarriak *ad hoc* aintzat hartu behar dira, irisgarritasunari baino konektibitateari erreparatuz. Bestalde, badira mugikortasun iraunkorrean gainditzen duten auzoak baina ez gainontzekoen maila eredugarrian: Adurtza, Abetxuko eta Mendizorrotza dira auzo hauek.

Orografiak hiriko mugikortasuna baldintzatzen duen elementua da, baina Vitoria-Gasteizko auzoen kasuan, orografia konplexua duen auzo bakarra Alde Zaharra da. Auzo honetan azalera aldapatsua oso presente dago, baita neurri batean Aranan ere, baina mugikortasun iraunkorraren diagnostiko orokorra ona da kasu bietan.

Esan beharra dago hiri ingurabide barruan diren auzo guztietan garraio publikoaren irisgarritasuna bikaina dela, eta hiri ingurabidetik kanpo dauden auzo gehienetan ere, irisgarritasuna oso handia da. Autobusen sare ortogonalak, gainera, desplazamenduetarako garraio publikoaren eraginkortasuna nabarmen handitu du. Errealitate orokorraren egoera ona alde batera, garraio publikoaren sareak irisgarritasun ahulagoa dauka Adurtza auzoan, non auzoaren heren batek ez duen 300 metro baino gutxiagora garraio publikoaren geltoki bat. Abetxuko eta Mendizorrotza auzoetan egoera ez da oso desberdina, irisgarritasuna %47koa delarik.

Abetxuko auzoak garraio publikoaren bitartez hirigunearekiko lotura egokia dauka, tranbia bertaraino heltzen da, baina geltoki hauen 300 metroko erradiotik kanpo geratzen da auzoko azaleraren %53,5a. Auzoko puntu batzuetatik geltokietara dagoen urruntasunari auzoko orografia aldapatsua erantsiz gero, herritarren mugikortasunerako zailtasun iturburu izan daiteke, nagusiki adinekoen artean. Mendizorrotzako auzoaren kasuan, hiri-trinkotasuna txikia izanik geltokien irisgarritasun maila ahula da, garraio publikoko geltokiak batez ere Gaztelako Atea eta Salbaterrabide kalean metatzen direlarik.

h) Euskal Herriko hiri-bidegorrien sare handiena auzoetan barrena

Azken urteotan bidegorrien sarea eraldatu eta hirian barrena hedatu da. Vitoria-Gasteizek Euskal Herriko hiriburuen artean bidegorri sare handiena duen hiria da. Datu bat emate aldera, euskal hiriburuetan dagoen bidegorri sareak orotara 262 kilometro dauzka, horietatik, 129 kilometro Vitoria-Gasteizen daude. Donostia da bidegorri sare handiena duen bigarren hiriburua eta 53 kilometrokoa da. Garraio publikoarekin gertatu bezala, auzo gehienek diagnostikoa bikaina den neurrian, nolabaiteko gabeziak dauzkaten auzoen diagnostikoa aipatzera mugatzea errazagoa da. Alde horretatik, zenbait gabezia sumatzen dira Ali Gobeon, Abetxukon, eta jakina, landa eremua

osatzen duen bi auzoetan zein Aretxabaleta Gardelegin. San Martin eta Adurtza auzoetan bidegorrien irisgarritasuna handia da, baina ez dago beste auzoen neurrian.

i) Coronacion eta Desamparados, auto bidezko hiri-mugikortasunaren hartzaileak

Lurrazpiko zein aterpez kanpoko erabilera publikoa duten parkingetako aparkaleku kopurua geoerreferentziatu eta gero, argazkiak ibilgailu pribatuak mugikortasunean duen zentralitatea ezagutzeko parada eskaini du. Norabide horretan, azpimarratzekoa da Coronacion auzoak aparkaleku dentsitate altuena duela, zehazki 73,5 aparkaleku/Ha-ko. Desamparadoseko aparkalekuen ratioa esanguratsua da (54,3 aparkaleku/Ha), baita Arana (54,2 aparkaleku/Ha), Anglo (48,4 aparkaleku/Ha), Zabalkunde (44,2 aparkaleku/Ha) eta San Cristobaleko (41,3 aparkaleku/Ha) auzoetakoa ere.

Aparkaleku hauen presentzia nagusiki auzoz gaindiko mugikortasun joerei erantzuten dio. Ibilgailu pribatuak mugikortasun ohituretan oraindik ere duen nagusitasuna handia da eta erdiguneak eta inguruetakoz zenbait auzok bizi duten egoera horren isla da. Mugikortasun iraunkorragoa sustatzeari begira Europako hiriburu askotan automobilei bideratutako espazioak murrizten ari dira, egoiliarrentzako aparkalekuak babestuz eta garraio publikoaren eskaintza handituz.

j) Azken lau urteetan 30 auzoetatik 23k biztanleria galdu dute

Euskal Herrian aro demografiko berri bat zabaldu da eta azken urteotan herritar kopurua gutxitzen hasia da. Mundu mailako krisialdi ekonomikoak euskal hiriburuetakoz biztanleria bolumena murrizteko joera izan du, baina hau ez da Vitoria-Gasteizen gertatu, eta egun, 2011 urtean baino 4.356 gasteiztar gehiago dago (+%1,8). Bitartean, Bilbon, Donostian eta Iruñan biztanleria bolumena murriztu egin da.

Vitoria-Gasteizen gertatu den biztanleria hazkundeak ñabardura asko ditu, izan ere, hiria osatzen duten 30 auzoen artean soilik zazpik handitu dute bere biztanleria bolumena: Zabalgana (+%56,9), Salburua (+%53,2), Aretxabaleta Gardelegi (+%46,6), Ali Gobeo (+%5,3), Abetxuko (+%4,1), Arriaga

Lakua (+%1,4) eta Arantzabela (+%0,9) izan dira. Aldiz, biztanleria galera handienak Santiago, Adurtza, Alde Zaharra, Santa Lucia, Zaramaga edo San Cristobal auzoetan izan dira.

Hiriburuko geografia eta herritarren arteko harremana etengabeko mugimenduan dagoen hartu-eman da, eta azken hamarkadan, barne mugimendu handia eman da Vitoria-Gasteizko auzoen artean. Hiri-hazkundera eta honi loturiko etxebizitza eskuragarritasuna izan dira barne mugimendu hori artikulatu duten aldagai nagusiak. Honela, azken urteotan hiri-hazkunderaren eskutik etxebizitza eskuratzeko adinean dauden gazte-helduak (30-44 urte bitartean, nagusiki) hiri periferiara mugiarazi ditu, eta ondorioz, belaunaldi segregazio berria eragin du hiriburuan.

k) Gazteak hiri periferiara: atzo Lakua Arriaga, gaur Salburua eta Zabalgana, bihar Aretxabaleta Gardelegi

Belaunaldien segregazio espaziala ez da fenomeno berria, Vitoria-Gasteizko bilakaera demografiko eta urbanistikoan antzerako errealitateak sortu dira beste zenbaitzuetan. Hiriburuan gazteen lehen metaketa 80. hamarkadan sortatu zen Lakua Arriaga auzoaren hedapenarekin³, hiriburuko iparraldeko periferia berrian jatorriz beste auzoak zituzten gazteak metatuz. 2000. milurtearekin hiri mailako gazteen bigarren ihesaldi handia gertatu da, kasu honetan ekialde eta mendebaldean kokaturiko hiri periferia berrira (Salburua eta Zabalgana). Horrela, egun auzo hauetan gasteiztarren %15,6a bizi arren, 30 eta 44 urte bitarteko herritarren %31,3a metatzen da.

Vitoria-Gasteiz mailan emandako gazteen bigarren ihesaldi horren ondorioz, auzo gehienen zahartze prozesua bizkortu egin da. Gazalbide, Pilar, Arantzabela, Aranbizkarra edo Santiago prozesu horren ikurrak dira, biztanleria galtzearekin bat, lau urteetan soilik zahartze tasa 7 eta 10 puntu bitartean handitu baitute. Baina auzo gehienei eragiten dien fenomeno da. Salburua eta Zabalganan 17.000 etxebizitza berri eraikitzeak erakarri dituen gazteak kontuan hartzen baditugu, egungoa ziurrenik hiriburuan inoiz ezagutu den auzoen arteko belaunaldi segregazio handiena da.

³ Cuaderno de trabajo 6: Análisis y caracterización de los barrios residenciales (2012). Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala.

Epe ertainean, aurreikustekoa da gazteen metaketa berria Aretxabaleta Gardelegin gorpuztea. Jakiteke dago oraindik migrazio fluxu berri horren erritmoa, etxebizitza merkatuaren gorabeherak eta biztanleriaren erosahalmena tartean. Edonola ere, azken urteotan betiko auzoetan suertatu diren bi fenomeno nagusiak indartuko dituela aurreikusi daiteke: herritarren galera eta zahartze demografikoaren areagotzea. Elkar elikatzen diren fenomenoak dira.

Epe luzeko ziklo demografikoen ikuspegitik, ordea, auzoen metabolismo demografikoarentzako osasuntsuena dibertsitatea da. Belaunaldi aniztasuna ziklo demografiko iraunkorren berme da eta auzoen bitalitatean eragiteko ahalmena dauka, bai elkarrekintza sozial eta kulturalaren iraunkortasunean, bai txikizkako merkataritzaren bideragarritasunean edota zerbitzu azpiegitura egonkorren optimizazioan. Ziklo demografiko gorabeheratsuek, ostera, dagoeneko hustutako auzoetan iraunkortasunari eragiten dioten espresio desberdinak dauzkate, eta hiruzpalau hamarkada barru, sortu berri diren hiri periferiako auzo horietan fenomenoak antzeko terminoetan errepikatzeak arriskua sortzen dute.

1) Bederatzi auzotan zahartze tasa %30tik gorakoa da

Zahartzearen gaineko auzoen diagnostikoa, hortaz, aipaturiko fenomenoagatik oso baldintzatuta dago. Egun zahartze tasa oso altuak ematen dira auzo askotan, horien artean buru Gazalbide (%39), Pilar (%37,7), Zaramaga (%36,1) eta Txagorritxu (%35,6). Era berean, haurren presentzia handia guraso gazteak izateko biztanleriaren presentzia indartsuaren eskutik etorri ohi denez, ez da harritzekoa haurren presentzia handiena egun Zabalganan (%23), Salburuan (%22,4) edo Aretxabaleta Gardelegin (%16,1) metatzea.

m) 30 auzoetatik 23k ez dute egungo gazteen bolumena ordezkatzeko gaitasunik

Edonola ere, haurren presentzia nabarmena da ere Arriaga Lakuan (%21,9), Sansomendin (%20,7) eta Ali Gobeon (%16,7), hiriburuko testuingurua erreferentzia gisa hartuta behintzat. Aldiz, 14 urtetik beherako biztanleriaren presentzia oso urria da Santiago (%6,7), Santa Lucia (%8,0), San Martin (%8,6) edo Desamparados (%9,2) auzoetan. Azken honen salbuespenarekin, auzo hauetan gazteen (15-29 urte) presentzia garrantzitsua da egun, baina oso urrun daude gazte multzo hori bere tamainan mantentzeko egoeratik. Gazteen presentzia handiago edo txikiago izan, Vitoria-Gasteizen dauden 30 auzoen artean 23k ez dute egungo gazteen bolumena ordezkatzeko gaitasunik.

n) Desorekak desoreka, metabolismo demografiko orokorra ez da hain txarra

Honekin guztiarekin, Vitoria-Gasteiz osoan ez dago metabolismo demografiko orokorraren balorazioa gaingitzen ez duen auzorik. Belaunaldi desberdinen presentzia handia edo txikia izan, metabolismo demografikoaren balorazio orokorrean hauen hiri mailako segregazio espaziala aintzat hartzen da, hiriko errealitate orokorrarekiko ziklo demografiko iraunkorrak auzo guztietan bermatuta dauden neurtzeko. Ildo horretan, badira gaingitu arren balorazio apalak dituzten auzoak, besteak beste Salburua, Zabalgana, Santiago, Gazalbide, Pilar, Txagorritxu eta Zaramaga. Errealitate demografiko orekatuagoa biltzen dute, bestalde, Abetxuko, Ali Gobeo, Ipar mendebaldeko landa eremua, Aretxabaleta Gardelegi, Alde Zaharra edo Ekialdeko landa eremua.

o) Etorkinen metaketa Alde Zaharrean, Coronacion eta Aranan

Gizarte kohesioaren diagnostiko interesgarria komunitate baten nortasuna ezaugarritzen duten aldagaien geografiari erreparatzetik dator. Ikuspegi espazialetik, biztanleriaren zenbait aldagaiek herritarren izaera sozial, ekonomiko edo kulturalaren gaineko auzoen erradiografia egiteko balio dute, eta abiapuntu horretatik, komunitate baten kohesio maila ezagutu. Ortzemuga horrekin,

herriarren jatorria, formazio maila, erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitzaren presentzia edo beste aldagai batzuen analisi espaziala lagungarria da.

Hiriburuan biztanleriaren %10a Europatik kanpo jaiotako gasteiztarak dira, baina auzoetan hauen presentzia desorekatua da. Kopuru hori aise gainditzen dute Alde Zaharra (%18,9), 1950eko hamarkadan orduko etorkin fluxuen ondorioz gertatu bezala⁴. Baina gaur egun, etorkinen presentzia Coronacion (%17,3) eta Arana (%15,8) auzoetan ere metatzen da, eta beste maila batean, Judimendi, (%14,7), Pilar (%14,3), Anglo (%13,4) edo Zaramagan (%12,7). Beste muturrean, Aretxabaleta Gardelegi (%3,2), San Martin (%4,3) eta Mendizorrotzan (%4,3) etorkinen presentzia oso ahula da. Etorkinen banaketa espazial honen gako nagusiak etxebizitzaren eskuragarritasuna eta auzoen adina dira.

p) Vitoria-Gasteizko Zabalgunea, erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitza parke handienetarikoa Euskal Herriko erdiguneen artean

Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitza ugarien presentzia gizarte kohesio ahul baten adierazgarria delakoan, aipatzekoa da Aretxabaleta Gardelegiko parkearen hustea (auzo berria eta 2011 urteko datuak izanik, egoera bestelakoa izan daiteke egun), baita Ekialdeko landa eremukoa eta Zabalgunekoa ere. Baliteke auzo hauetan etxebizitza eskuragarritasun zailaren seinale izatea. Erabilera nagusirik gabeko etxebizitza parkea handia da Ali Gobeo (%16,3), Judimendi (%14,4), Alde Zaharra (%14,2) eta Desamparadosen (%14,2) kasuetan ere.

Vitoria-Gasteizko Zabalguneak arreta berezia merezi du, erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitza proportzio (%16,9) handia baitu. Euskal Herriko gainontzeko hiriburuetan ere antzerako zerbait gertatzen da, baina soilik Donostiako erdiguneak dauka etxebizitza parkearen gaineko mota honetako problematika nabarmenagoa. Bilbo, Iruña eta Baionako erdiguneek erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitzaren presentzia apalagoak dauzkate.

⁴ GLZ. DE LANGARICA MENDIZABAL, Aitor (2007): *La ciudad revolucionada*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala.

q) Zenbait desoreka herritarren formazio-mailaren auzo geografian, segmentazio sozialaren ikur

Herritarren nortasun pertsonal eta kolektiboan garrantzitsua den beste ezaugarri bat formazio-maila da. Adina eta maila sozioekonomikoa bezalako aldagaiek biztanleriaren formazio-mailaren gainean eragin handia izan ohi dutenez, goi-formazioko ikasketak burutu dituzten gasteiztarren %23,9aren eta lehen mailako ikasketa gabeko edo alfabetatu gabeko gasteiztarren %6aren auzo mailako banaketa behatzea komeni da.

Norabide horretan, nabarmentzekoa da Vitoria-Gasteizko lau auzotan goi-formazioko biztanleriaren presentzia %38tik gorakoa dela (Zabalkundea, Mendizorrotza, Ipar mendebaldeko landan eremuan eta Lovainan), ordea, goi-formazioko biztanleria urria da Ali Gobeon, Aranan, Aranzizkarran eta Abetxukon. Azken auzo honetan, ikasketarik gabekoen presentzia handia dago, Zaramagan bezainbeste, eta Judimendin, Arana, Adurtza edo Pilarren ere modu lausoagoan fenomeno bera bizi da.

r) Hiri ingurabidearen barruan gainzahartzea metatzen

Agerikoa denez, formazioaren hiri geografian zahartze demografikoaren itzala dago. Vitoria-Gasteizen gero eta indartsuagoa da gainzahartzearen fenomeno (+75 urte) eta, alde batetik, zahartzaroari loturiko menpekotasun egoera handienaren nolakotasuna, eta bestetik, hiri eta komunitate baten oreka higitzeko arriskua aditzera ematen du. Vitoria-Gasteizen, 22.600 dira 75 urte edo gehiago dituzten gasteiztarrak, hau da, ia hamarretik bat (%9,2). Auzoka, gainzahartzea Judimendin (%19,3), Coronacionen (%18,6) eta Zaramagan (%17,4) metatzen da.


Gainontzeko auzo gehienetan indar ahulagoarekin bada ere fenomeno hau ageri da, salbuetsiz gazteen migrazio fluxuak azken hiru hamarkadetan xurgatu dituzten auzoak (Arriaga Lakua, Zabalgana eta Salburua). Bada, beraz, gainzahartze maila eta hiri-hazkundearen kronologiaren arteko korrelazioa, hiri berria eta zaharraren arteko kontraste eta desoreka bat. Hiri ingurabidearen barruan dauden auzoetan gainzahartzea metatzen hasia da, hala nola 1960 eta 1970. hamarkadako hiri-hazkundean egituratutako beste auzo batzuetan ere: Arana, Adurtza, Abetxuko eta PGT delako

zonaldea (Pilar, Gazalbide, Txagorritxu). Fenomenoak hiriaren azalera eremu handia hartzen du eta errealtate horri buelta emateak epe luzea beharko du.

s) Alde Zaharra, hiri elkartegintzaren metatze gune nagusia

Amaitzeko, gizarte kohesioa higitu ordeztu horren metaketaren erakusle da gizarte eragileen ehun dentsitatea. Gizarte eragileen eragin esparrua auzoa, hainbat auzo, hiriburu osoa edo harago doala aintzat hartuta, oso nabaria da Alde Zaharrak hiri mailako gizarte eragileen kapitala metatzen duela. Indar endogeno eta exogenoen elkarrekintza handia nozitzen duen auzoa da, alegia. Modu ahulagoan Zabalgunea eta Lovaina hiri mailako dinamika ere metatzeko gaitasuna dute. Mendizorrotzak, aldiz, elkartegintza dinamismo handia barnebiltzeko gaitasuna dauka kirol esparruko eta bertan diren kirol azpiegituren eraginez. Ageriko hiri dinamika sozialen metaketak alde batera, Anglo, Ekialdeko eta Ipar-mendebaldeko landa eremua, San Martin, Adurtza, Gazalbide eta Abetxukok gizarte eragileen ehun dentsitate handia dute.

3. AUZOAK ETA VITORIA-GASTEIZKO EGITURA



4. HIRI MORFOLOGIA

4.1. KONTZEPTUA

Hiri eredu jasangarri bat lurraren erabilera trinkoan oinarritzen da, besteak beste, eremu naturalaren artifizializazio maila zainduz. Biztanleria-dentsitate aproposa duen lur eremuan baliabide naturalen erabilera murriztea lor liteke, beti ere, funtzionaltasuna galdu gabe. Halaber, espazio publikoan egiten diren ohiko ekintzen bizigarritasun eta erosotasunerako, hirigintzak espazio berde eta gune irekien proportzio orekatua behar du. Esandakoaz gain, bada aintzat hartzeko beste ardatz bat, espazio naturalak eta biodibertsitate aberats baten presentzia zaintzea, hauek bizigarritasun apropos baterako ezinbesteko elementuak dira.

Horregatik, atal honetan lurraldearen ezaugarri fisikoak aztertzen dira. Biztanleria dentsitatea, auzoen eraikuntza maila eta espazio berde zein irekien proportzioak egokiak diren neurtzen da. Aintzat hartzen ditu, halaber, lurraldearen inundagarritasun arriskua eta orografiaren zailtasunak.

4.2. HIRI MORFOLOGIAREN AUZO RANKINGA

HIRI MORFOLOGIAREN BALORAZIOA	
Txagorritxu	10
Aranbizkarra	10
San Cristobal	10
Desamparados	10
Sansomendi	10
Zaramaga	10
Gazalbide	10
Judimendi	10
Pilar	10
Santiago	10
San Martin	9
Ariznabarra	9
Santa Lucia	9
Coronación	9
Arantzabela	9
Anglo	9
Zabalgana	9
Ensanche (Zabalgunea)	9
Ali Gobeo	9
Adurtza	8
Salburua	8
Alde Zaharra	8
Ekialdeko landa eremua	8
Lovaina	8
Aretxabaleta Gardelegi	8
Mendizorrotza	8
Arana-Vitoria-Gasteiz	8
Arriaga Lakua	8
Ipar mend. landa eremua	8
Abetxuko	7



4.3. HIRI MORFOLOGIAREN DIAGNOSTIKOA

Vitoria-Gasteizko hiri morfologiak errealitate bereziak biltzen ditu: batetik, Alde Zaharraren inguruan zirkunferentzia moduan zabaltzen den hiri nukleoa, hiri-ingurabidearen barruko eremua. Bestetik, hiriaren periferia osatzen duten auzoak, gehienak 1980tik aurrera eraikitakoak. Hiri nukleoko auzoek orokorrean biztanleria eta etxebizitza dentsitate oso aproposak dituzte, eta ondorioz, lurraren erabilera mugatzen dute eta zerbitzuen eskaintzari lotutako energia eskaerari modu eraginkorrean aurre egiteko gaitasuna daukate. Horren adibide argiak dira Coronacion, Alde Zaharra, Anglo, Judimendi eta Pilar auzoak, 120 etxebizitza/Ha-tik gorako etxebizitza dentsitatea dutelarik.

Aldiz, badira hainbat auzo hiri nukleoaren parte izanik, eraikuntza dispertsio handia eta dentsitate desegoki bat erakusten dutenak kasuan kasuko errealitateagatik: Mendizorrotzak (7,7 etxebizitza/Ha) esaterako urbanizazio egitura du, Salburua (30 etxebizitza/Ha) eta Zabalgana (42,3 etxebizitza/Ha) oraindik garapen fasean dauden auzoak dira, eta Gazalbide (40,4 etxebizitza/Ha) eta Arantzabelak (32,2 etxebizitza/Ha) parkez eta espazio berdez inguratutako




>> *Eraikinen adina hiri-hazkunde monozentrikoaren aztarna garbia da. Salbuespenak ere badira: Ariznabarra, Abetxuko eta Ariznabarra tartean.*

>> *Hiri-trinkotasun eskasa du Mendizorrotzak, baina ez da auzo bakarra. Salburua eta Zabalganak ere hiri-trinkotasun lausoa daukate.*

auzoak dira. Nolakotasun honek lurraren erabilera handiagoa eskatzen du eta auzoko zerbitzuei aurre egiteko beharrezkoa dena baino energia eta baliabide gehiago erabiltzen ditu.

Ezaugarri oso desberdinak dituzte, ordea, Ekialdeko eta Ipar-mendebaldeko landa-eremuek eta Aretxabaleta Gardelegi auzoak. Auzo hauek herri nukleo txikiz osatuta daude, eta ondorioz, oso eraikuntza dentsitate maila baxua dute (6 etxebizitza/Ha-tik behera). Errealitate hau Vitoria-Gasteizko hiri nukleoarekiko oso desberdina da eta ezin daiteke hiriaren egokitasuna aztertzeke erabiltzen diren parametro berdinetan neurtu.

Etxebizitza dentsitatea (etxeb./Ha). Vitoria-Gasteizko auzoak, 2011 urtea



Hiri trinkotasunak ordea, oreka bat izan behar du espazio ireki eta berdeekin bizigarritasun egoki bati erantzuna emateko. Ezaugarri historikoak direla eta, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharra eta bere inguruko auzoak (Coronación, Pilar, Anglo eta Santiago) gune berdeen gabezi handia dute. Dena den, auzo hauen inguruan eraikitako gainerako auzoak espazio berdeen presentzia hiriaren diseinua aintzat hartu zuten, eta ondorioz balio optimotetatik gertu daude (15 m²/biztanleko): San Martin (12,0 m²/biztanle), Ariznabarra (11,0 m²/biztanleko), San Cristobal (10,8 m²/biztanleko) eta Zaramaga (9,1 m²/biztanleko). Aipagarriak dira Gazalbide (37,3 m²/biztanleko) eta Arantzabela (37,1 m²/biztanleko) auzoak; beraien egituran etxebizitzaren inguruan dauden espazio irekiek presentzia handia dute, eta ondorioz, gune berdeak auzo hauen indarguneetako bat dira.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko orografiak ez du konplexutasun handirik, eta ondorioz, hiri morfologia eroso bat erakusten du; soilik Alde Zaharrean nabarmentzen dira malda altuko eremuak. Gainera, hiria Arabako lautadan eraikita egoteak auzoen inundagarritasun arriskuak asko mugatzen ditu; Zadorra ibaiaren gertutasunaren ondorioz Arriaga Lakua eta Abetxuko dira uholdeak jasateko arrisku nabarmenena dutenak, auzoko azaleraren %20,6 eta %31,5 hurrenez hurren uholdeek kaltetzeko arriskuarekin.

HIRI MORFOLOGIAREN ADIERAZLE PANELA. VITORIA-GASTEIZ.					
Auzoa	Biztanleria dentsitatea (Bizt./Ha)	Etxebizitza dentsitatea (Etxebiz./Ha)	Zonalde berdeen presentzia (m2/bizt.)	Inundagarritasun arriskua (%)	Orografia- konplexutasuna (%)
Txagorritxu	156,3	74,9	14,1	0,0	17,2
Aranbizkarra	255,8	116,1	7,0	0,0	14,6
San Cristobal	184,4	91,0	10,8	0,0	12,9
Desamparados	229,8	112,0	6,9	0,0	22,8
Sansomendi	147,2	57,3	17,0	0,0	15,3
Zaramaga	179,1	91,4	9,1	0,0	7,1
Gazalbide	105,1	40,4	37,3	0,0	7,3
Judimendi	239,7	125,2	4,6	0,0	17,7
El Pilar	258,5	120,2	3,2	0,0	5,9
Santiago	246,0	113,4	3,6	0,0	9,2
San Martin	156,4	58,9	12,0	2,0	15,8
Ariznabarra	162,4	71,2	11,0	0,5	21,4
Santa Lucia	233,2	112,4	6,1	0,0	42,1
Coronación	367,9	199,0	0,2	0,0	12,7
Arantzabela	80,3	32,2	37,1	0,0	30,9
Anglo	242,4	127,5	1,5	0,0	13,0
Zabalgana	92,4	42,3	23,7	0,0	32,8
Ensanche	176,7	94,9	4,3	0,0	19,0
Ali Gobeo	51,4	23,1	14,6	0,0	14,7
Adurtza	46,5	23,5	121,0	0,6	27,5
Salburua	71,8	30,0	26,4	3,7	30,3
Alde Zaharra	301,6	173,4	0,5	0,0	65,2
Ekialdeko landa eremua	10,8	4,6	20.129,2	4,3	14,5
Lovaina	177,9	87,5	4,5	5,7	12,6
Aretxabaleta Gardelegi	10,9	1,8	10.054,8	2,1	31,7
Mendizorrotza	18,6	7,7	133,4	2,2	34,3
Arana	212,9	99,5	3,7	0,0	50,2
Arriaga Lakua	122,4	50,7	19,8	20,6	14,7
Ipar mend. landa eremua	11,9	5,8	24.138,1	11,6	50,1
Abetxuko	79,3	30,4	56,3	31,5	42,9
VITORIA-GASTEIZ	100,0	45,6	414,7	6,6	32,3



5. ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNA

5.1. KONTZEPTUA

Herritarren bizi-kalitate egokiak oinarrizko zerbitzuak eskuragarri izatea behar du. Ikuspegi horretatik pertsona ororen eskubidea da oinarrizko beharrak aseko dituen zerbitzu azpiegiturretara irisgarritasun egokia bermatua izatea. Hirigintza ikuspegi batetik espazio publikoak zenbat eta erabilgarritasun handiagoa izan orduan eta anitzagoa izango da beronen erabilera eta auzotarren arteko hartu-emana. Horrek, ondorioz, zerbitzuetara iristeko beharrezkoa den garraiorako energia murrizteko aukera eman dezake.

Lurraldearen ikuspegi holistiko batetik, hiriek lurraldeko zerbitzuak metatzen dituzte baina bere baitan zerbitzuen banaketa geografikoa ez da beti behar bezain orekatua. Atal honetan, beraz, oinarrizko zerbitzuek duten hedapen-maila neurtzen da. Erabilera eremua gehienez 600 metroko erradioko distantzia da (300 metro, haurrentzako jolaslekuen kasuan; 150 metro, hondakinak sailkatzeko edukiontzien kasuan).

5.2. ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN AUZO RANKINGA

ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN BALORAZIOA	
Alde Zaharra	
Anglo	
Coronación	
Arantzabela	
Judimendi	
Pilar	
Aranbizkarra	
Arana	
Txagorritxu	
Ariznabarra	
Gazalbide	
Zaramaga	
Santiago	
Desamparados	
San Martin	
San Cristobal	
Santa Lucia	
Lovaina	
Abetxuko	
Zabalgana	
Sansomendi	
Arriaga Lakua	
Ensanche (Zabalgunea)	
Salburua	
Adurtza	
Mendizorrotza	
Ali Gobeo	
Aretxabaleta Gardelegi	
Ekialdeko landa eremua	
Ipar mend. landa eremua	



5.3. ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN DIAGNOSTIKOA

Vitoria-Gasteizko hiri-ingurabide barruko auzoek zerbitzuen eskuragarritasun oso ona daukate; kasu gehienetan oinarritzko zerbitzu guztien eskaintza modu aiproposean ematen da eta beraz, auzo hauen balorazioa oso positiboa da. Bestalde, zerbitzuen eskuragarritasun maila apalagoa duten auzoek hiri morfologia desberdin bat erakusten dute, eta ondorioz, azpiegitura gutxiago dituzte edo hauek eskaini dezaketen estaldura mugatuagoa da.

Hiri erdiguneak izan ohi dira zerbitzuen eta aktibitateen gehiengo biltzen duten espazioak; Alde Zaharra, Anglo, Coronacion eta Pilar auzoek oso ondo islatzen dute errealitate hau. Kirol azpiegiturek, liburutegi eta kultur azpiegiturek eta osasun zentroek hiri erdiguneko auzoen

azalera osoari ematen diete zerbitzua. Modu berean, haur eta lehen hezkuntzako zentrozen eragin eremua kontutan hartuta, auzo hauetan eskaintzen duten estaldura ia erabatekoa da. Eskaintza hau auzoen bitalitatea eta dinamismoa bermatzeko ezinbestekoa da, bizilagunek eguneroko aktibitateak bertan egiteko aukera baitute.

Lovaina eta Zabalgunea auzoetan hezkuntza zerbitzuen estaldura %78,6 eta %40,5ekoa da, hurrenez hurren, hiri nukleoko gainerako auzoetakoa estaldura baino baxuagoa. Egia da bi auzo hauetan haurren presentzia Vitoria-Gasteizko batez bestekoaren azpitik dagoela eta azpiegitura hauek beharrezko zerbitzua eskaini dezaketela, baina auzoen etorkizuneko eraberritzeari eta bitalitateari begira arazo bat izan daiteke. Hiri zentro inguruko auzoetan estaldura baxuagoa duen




>> *Hiri-ingurabide barruko auzoen zerbitzu sarea oso egokia da.*

beste zerbitzu bat haurren jolaslekuena da: Santiago (%11,3), Arana (%55,8) eta Gazalbide (%49,4). Dena den, auzo hauen dimentsioa zein den ikusita egoera ez da larria inguruko auzoen jolaslekuetatik gertu baitaude.

Gazalbide eta Arantzabelak gainerako auzoek baino dentsitate baxuagoa izan arren, ez dute zerbitzuen eskaintzari lotutako inongo arazorik. Auzo hauen tamaina ez da bereziki handia, eta beraz, beharrezko zerbitzua izateko azpiegitura gutxiarekin edo inguruko auzoen azpiegiturekin nahikoa dute.

Haurrentzako jolaslekuen estaldura (%). Vitoria-Gasteizko auzoak, 2016 urtea



Salbuespenak alde batera utzita, zerbitzuen eskuragarritasunaren mailak ordea behera egiten du hiri nukleoko dentsitate baxueneko auzoetan. Liburutegi eta kultur azpiegiturei

dagokionez Mendizorrotza (%7,8), Zabalgana (%24,6), San Martin (%35,4), Salburua (%54,5) eta Zaramaga (%39,7) auzoek duten estaldura nahiko apala da. Antzeko egoera bizi da osasun zentroen eskaintzarekin, beraien influentzia eremuak ez baititu hainbat auzo ondo zerbitzatzeko: Mendizorrotza (%5,3), Zabalgana (%39,8) eta Salburua (%39,5). Ali Gobeo, Sansomendi, Adurtza eta

>> *Hiri-trinkotasun txikiko auzoetan zerbitzuen eskuragarritasuna ahulagoa da.*

Arriaga Lakua auzoen datuak ordea kontu handiz aztertu behar dira bertan dauden industria guneez estaldura mailan eragin zuzena izan baitezakete.

Auzo hauetan beraz komenigarria litzateke oinarritzko zerbitzuen erabileraren inguruko azterketa sakonago bat egitea. Azaldutako errealitateak zerbitzuen eraginkortasun eza erakutsi dezake, eta ondorioz, auzo hauetako bizilagunek azpiegiturak eskura ez izateko eta modu aporosean ez erabiltzeko arriskua dute.


>> Zaborra sailkatzeko

edukiontzien zerbitzua

egokia da auzo guztietan

Hirien eguneroko aktibitateak aurrera eraman ahal izateko erabiltzen den energia eta material kopurua geroz eta handiagoa da. Hirien helburu nagusienetako bat ingurugiroan eragiten duten inpaktua murriztea izan behar da, eta horretarako baliabide naturalen eta hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklatzea ezinbestekoa da. Zentzu honetan, zaborren sailkapenerako edukiontziek ematen duten zerbitzua bikaina da Vitoria-Gasteizko hiri nukleo osoan; faktore honek garrantzi handia du hiriaren metabolismoan eta materialaren zikloa ahalik eta berriztagarrien izaten laguntzen du.

Zaborra sailkatzeko edukiontzien estaldura (%). Vitoria-Gasteizko auzoak, 2016 urtea.



Aztertu diren zerbitzuen estaldura oso baxua da Ekialdeko eta Ipar-mendebaldeko landa-eremuan eta Aretxabaleta Gardelegi auzoan. Dena den, aurreko atalean azaldu bezalaxe, auzo hauen errealitatea ezin da hiri ikuspegi batetik aztertu.

ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN ADIERAZLE PANELA. VITORIA-GASTEIZ.

	Haurrentzako jolaslekuen estaldura (%)	Kirol azpiegituren estaldura (%)	Liburutegi eta kultur azpiegituren estaldura (%)	Osasun azpiegituren estaldura (%)	Haur hezkuntza zentroen estaldura (%)	Lehen hezkuntza zentroen estaldura (%)	Zaborra sailkatzeko edukiontzien estaldura (%)	
Alde Zaharra	96,4	100	100	100	100	100	100	
Anglo	95,4	100	100	100	100	100	100	
Coronación	93,1	100	98,7	100	100	100	100	
Arantzabela	87,9	100	100	100	100	100	100	
Judimendi	77,9	100	100	100	100	100	100	
Pilar	74,3	100	97,3	100	100	100	99,6	
Aranbizkarra	74,4	100	92,7	99,8	100	100	98,2	
Arana	55,8	100	100	99,7	100	100	100,0	
Txagorritxu	74,8	100	97,9	94,0	100	100	86,3	
Ariznabarra	92,1	100	88,4	94,3	100	93,9	100	
Gazalbide	49,4	100	100	97,6	100	100	99,1	
Zaramaga	98,5	100	39,7	96,8	100	100	99,8	
Santiago	11,3	100	100	100	100	100	100	
Desamparados	100	100	100	92,6	77,5	77,5	99,1	
San Martin	77,5	100	35,4	90,7	100	100	92,5	
San Cristobal	99,8	100	100	95,1	86,2	33,5	100	
Santa Lucia	96,3	100	100	40,6	100	100	100	
Lovaina	80,6	100	91,2	64,3	78,6	78,2	99,6	
Abetxuko	57,5	93,7	48,9	73,4	77,4	75,9	53,2	
Zabalgana	85,5	94,0	24,6	39,8	86,0	67,3	72,4	
Sansomendi	63,4	88,7	51,5	29,0	86,3	70,2	68,7	
Arriaga Lakua	53,9	84,1	54,2	49,2	66,4	62,6	53,5	
Ensanche (Zabalgunea)	67,7	100	99,7	55,7	40,5	40,5	96,9	
Salburua	80,0	94,1	54,5	39,5	74,9	43,9	56,8	
Adurtza	29,6	69,3	43,4	19,5	46,1	45,0	24,8	
Mendizorrotza	36,2	100	7,8	5,3	28,2	19,3	43,4	
Ali Gobeo	13,9	57,8	7,4	0,0	16,7	1,5	35,6	
Aretxabaleta Gardelegi	2,0	9,7	0,3	0,1	0,3	0,2	0,7	
Ekialdeko landa eremua	0,5	3,9	0,8	0,2	0,8	0,3	0,9	
Ipar mend. landa eremua	0,3	3,2	0,6	0,2	0,7	0,3	0,3	
VITORIA-GASTEIZ	6,5	13,1	5,2	4,5	7,1	5,9	6,6	

0-1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

6. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

6.1. KONTZEPTUA

Hiriko guneen erabilera funtzional desberdinak direla-eta, hiritarrek eguneroko eginbeharrei erantzuteko hiriko puntuen artean mugitu beharra izaten dute. Desplazamendu hauetan ibilgailu pribatuaren erabilera nagusitu da azken urteotan. Joera honek, espazio publikoaren diseinuan errepide eta aparkalekuen presentzia indartzea eragin du; gainera, mugikortasun eredu honi lotutako energia kontsumoa altua izateaz gain hiriaren kutsaduraren erantzule nagusienetarikoa da.

Mugikortasun eredu iraunkor baterako, hiriko desplazamenduen subjektu nagusia oinezkoak, bizikletak eta garraio publikoa izan behar dira. Hau lortzeko gako nagusia, batetik, lurraldearen funtzio desberdinen arteko gertutasuna dago (etxebizitza, lanpostua, aisia, zerbitzuak...), eta bestetik, bidegorri sare eta garraio publikoaren bidez ibilgailu pribatuaren alternatiba on bat eskaintzea.

Atal honek hiriko eremu funtzional desberdinen arteko desplazamendua modu iraunkorrean bermatuta dagoen aztertzen du. Adierazleek bidegorri sareak eta garraio publikoak duten estaldura neurtzen dute, eta auzoek duten ibilgailu pribatuen

6.2. MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN AUZO RANKINGA

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN BALORAZIOA	
Santiago	
Zaramaga	
Aranbizkarra	
Ariznabarra	
Judimendi	
Pilar	
Lovaina	
Gazalbide	
Txagorritxu	
San Cristobal	
Anglo	
Arantzabela	
Desamparados	
Coronación	
Zabalgana	
Salburua	
Santa Lucia	
San Martin	
Arana	
Ensanche (Zabalgunea)	
Sansomendi	
Alde Zaharra	
Ali Gobeo	
Arriaga Lakua	
Mendizorrotza	
Abetxuko	
Adurtza	
Aretxabaleta Gardelegi	
Ekialdeko landa eremua	
Ipar mend. landa eremua	



6.3. MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN DIAGNOSTIKOA

Vitoria-Gasteizko auzo gehienek mugikortasun eskaintza iraunkor bat dute; hiri kanpoaldean dauden auzoak dira atal honetan muga handienak dituztenak, nagusiki hiriaren trinkotasunetik urruntzen diren auzoak eta landa eremuetara zabaltzen diren herri nukleo txikiak direlako.

Hiriaren nukleoa osatzen duten auzoek garraio publikoaren eta bidegorri sarearen estaldura

bikaina dute; auzo hauetan bi zerbitzu hauek eskaintzen duten estaldura %100tik oso gertu dago, eta soilik San Martinek du bidegorri sarearen %80ko estaldura baino baxuagoa.



>> Garraio publikoaren irisgarritasuna oso handia da, bikaina hiri-ingurabide barruan

Mugikortasun iraunkor bati begira erdiguneko auzo batzuek duten eragozpen nagusia orografia da. Horiek horrela, Alde Zaharraren azaleraren %65,2a %6ko malda gaingitzen du bere kokapena muino batean baitago; Arana eta Santa Lucia auzoetan arazo bera eremuaren %50,2 eta %42,1ean gertatzen da hurrenez hurren. Aspektu honek eguneroko desplazamenduak oinez egitea zailtzen du eta oztopo garrantzitsu bat bilakatzen da adineko pertsona zein mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Hiriaren erdigunetik aldentzen diren auzoek trinkotasuna galtzen dute eta mugikortasun zerbitzu apropos bat eskaintzeko baliabide gehiago behar izaten dituzte. Abetxuko auzoa esaterako hiri nukleoaren eta landa-eremuaren mugan kokatzen den herri nukleo batek osatzen du. Vitoria-Gasteizetik gertutasuna gainerako landa-eremuko herri nukleoek ez duten ezaugarri bat da, eta

hau mugikortasun zerbitzuen eskaintzan nabaria da: garraio publikoaren estaldura %46,5koa da, eta bidegorri sarearena berriz %61,0koa.

Garraio publikora irisgarritasuna (%). Vitoria-Gasteizko auzoak, 2016 urtea.




Mendizorrotza auzoak duen urbanizazio izaerak mugikortasun eredu apropos baterako zailtasunak jartzen ditu. Bidegorri sarearen estaldura nahiko zabala da (%84,8) auzoko kirol zerbitzuen presentzia eta eraztun berdearen gertutasunari esker, baina garraio publikoak auzoaren %46,9ra soilik iristen da, eta ondorioz, ibilgailu pribatua bilakatzen da mugikortasunerako garraiobide nagusia.

Zentruak duen garraio publikoaren eta bidegorri sarearen estaldura aproposa ikusita, hainbat auzok behar luketena baino aparkaleku dentsitate handiagoa dute. Ezaugarri honek ibilgailu pribatuaren zentralitatea indartzen du mugikortasun iraunkor baterako aukerak aproposak diren auzoetan. Coronacion auzoak aparkaleku dentsitate altuena du 73,5 aparkaleku/Ha-ko balioarekin, eta Desamparados (54,3 aparkaleku/Ha), Arana (54,2 aparkaleku/Ha) eta Anglok (48,4 aparkaleku/Ha) aparkaleku dentsitate esanguratsua dute. Mugikortasun iraunkor bat bultzatzeko, ibilgailu pribatuari alternatiba on bat eskaintzen zaion auzoetan kotxeei bideratutako espazioak murriztea estrategia egoki bat da.

*>> Merkataritza hiri-
erdigunean metatzearen
ondorioz, ibilgailu
pribatuen presentzia
nabarmena da Coronacion
eta Desamparadosen.*

Aparkalekuen presentzia (aparkaleku/Ha). Vitoria-Gasteizko auzoak, 2016 urtea.



Mugikortasun iraunkorra aztertzeke erabili diren irizpideek Ipar-mendebaldeko eta Ekialdeko landa-eremuen eta Aretxabaletaren errealitate desberdina agerian uzten du. Auzo hauek herri nukleo txikiz eta landa-eremu zabalez osatuta daude, eta ondorioz, garraio publikoaren eta bidegorri sareen zerbitzu gabezia bistakoa da. Garraio publikoaren estaldura oso baxua da eta ibilgailu pribatua bilakatzen da desplazamenduen oinarri nagusi. Dena den, landa-eremu hauetan mugikortasun iraunkor batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak ez dira hiriko nukleoak izan beharko lituzkeenaren berdinak; kasu hauetan mugikortasun zerbitzuen estaldura ez da datu hain garrantzitsua eta herri nukleo txikiek Vitoria-Gasteizko hiri nukleoarekiko duten konektibitatean jarri beharko litzateke arreta.

MUGIKORTASUN IRAUNKORAREN ADIERAZLE PANELA. VITORIA-GASTEIZ.

	Orografia- konplexutasuna (%)	Garraio publikora irigarritasuna (%)	Bidegorrien irigarritasuna (%)	Aparkalekuen presentzia (Apark./Ha)	
Santiago	9,2	100	100	0,0	
Zaramaga	7,1	100	100	4,9	
Aranbizkarra	14,6	100	100	12,0	
Ariznabarra	21,4	100	100	8,9	
Judimendi	17,7	100	100	12,7	
Pilar	5,9	100	100	28,1	
Lovaina	12,6	100	100	30,8	
Gazalbide	7,3	100	100	37,2	
Txagorritxu	17,2	99,3	100	29,3	
San Cristobal	12,9	100	100	41,3	
Anglo	13,0	100	100	48,4	
Arantzabela	30,9	100	90,9	7,2	
Desamparados	22,8	100	100	54,3	
Coronación	12,7	100	100	73,7	
Zabalgana	32,8	89,6	99,4	2,8	
Salburua	30,3	93,6	91,1	2,0	
Santa Lucía	42,1	91,6	100	12,6	
San Martin	15,8	100	77,0	12,3	
Arana	50,2	100	100	51,2	
Ensanche (Zabalgunea)	19,0	88,5	100	44,2	
Sansomendi	15,3	85,8	90,4	5,6	
Alde Zaharra	65,2	89,2	98,9	1,8	
Ali Gobeo	14,6	92,6	53,4	0,9	
Arriaga Lakua	14,7	70,8	87,2	13,6	
Mendizorrotza	34,3	46,9	84,8	11,0	
Abetxuko	42,9	46,5	61,0	3,1	
Adurtza	27,5	31,0	78,4	5,9	
Aretxabaleta Gardelegi	31,7	8,3	8,7	0,5	
Ekialdeko landa eremua	14,5	2,5	3,7	0,5	
Ipar mend. landa eremua	50,1	1,5	3,0	0,1	
VITORIA-GASTEIZ	32,3	10,3	12,5	1,4	

0-1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

7. METABOLISMO DEMOGRAFIKOA

7.1. KONTZEPTUA

Hiri baten parametro demografiko egokiak zehaztea hausnarketa antzua gerta liteke. Mendebaldeko ezaugarri demografikoak oso presente daude egungo Euskal Herrian, baita bere hiriburuetan ere. Biztanleriaren zahartze prozesua aurrera doa, bizi-itxaropena handia da gurean eta jaiotza kopurua murrizten hasia da indartzen ari diren familia eta bizi eredu berrietara egokituz.

Auzo eta hiri baten metabolismo demografikoa neurtzeko biztanleria fluxuaren joera aintzat hartzeaz gain, bestelako segregazioak ere kontuan hartu behar dira, hala nola belaunaldien artekoa edo sexuen artekoa. Auzo guztietan ziklo demografiko iraunkorra bermatzeko belaunaldien arteko ordezkapena errazten duen egitura demografikoa izatea izan daiteke gakoa, horrek, halaber, berarekin ekar baitezake beste hainbat prozesu jasangarri, hala nola, bizitasun soziala, txikizkako merkataritzaren iraunkortasuna zein hirigintza oreka.

Maiz hirigintza arloko planifikazioan belaunaldi segregazioak auzoetan eragiten dituen gorabeherak ez dira beti behar bezala kontutan hartzen. Horiek horrela, atal honetan auzoetako biztanleriaren bilakaera eta zaharberritzea neurtzen dira, auzoetako adin maila desberdinen arabera segregazioa aintzat hartuz.

7.2. METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN AUZO RANKINGA

METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN BALORAZIOA	
Abetxuko	
Ali Gobeo	
Ipar mend. landa eremua	
Aretxabaleta Gardelegi	
Alde Zaharra	
Ekialdeko landa eremua	
Arantzabela	
Ariznabarra	
Sansomendi	
Ensanche (Zabalgunea)	
Aranbizkarra	
Adurtza	
Arriaga Lakua	
Judimendi	
Coronación	
Santa Lucia	
Anglo	
Mendizorrotza	
Arana	
Lovaina	
San Cristobal	
Desamparados	
San Martin	
Zaramaga	
Txagorritxu	
Pilar	
Gazalbide	
Santiago	
Zabalgana	
Salburua	



7.3. METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN DIAGNOSTIKOA

Azken urteetan Euskal Herria eta bere hiriburuek biztanleria bolumena galtzen hasiak dira, baina Vitoria-Gasteizko kasuan, Baionan bezalaxe, hau ez da gertatu. 2011az geroztik Vitoria-Gasteizko biztanleria %1,8 hazi egin da (+4.356 gasteiztar gehiago), baina fenomeno hau ez da auzo guztietan eman, ezta gutxiago ere. Areago, gehiago dira orduetik biztanleria bolumena galdu duten auzoak irabazi dutenak baino. Hiriko biztanleria bolumenaren hazkundera zazpi auzoei esker gertatu da: Zabalgana (+%56,9), Salburua (+%53,2), Aretxabaleta Gardelegi (+%46,6), Ali Gobeo (+%5,3), Abetxuko (+%4,1), Arriaga Lakua (+%1,4) eta Arantzabela (+%0,9).

Hiriburuko biztanleriaren banaketa etengabeko mugimenduan dagoen fenomeno bat da, eta Vitoria-Gasteizko kasuan gainera, azken hamarkadan barne mugimendu handia eman da. Barne mugimendu horiek artikulatzeko gaitasuna duten aldagaien artean hiri-hazkundera eta honi loturiko etxebizitza eskuragarritasuna nabarmendu behar dira. Normalean, hiri-hazkundera etxebizitza eskuratzeko adinean dauden gazte-helduak (30-44 urte, batez ere) hiri periferiara mugiarazten ditu, eta Vitoria-Gasteizen azken hamarkadan gertatu den hiri-hazkundera, fenomeno hau oso agerikoa da. Hau da,




>> 2011az geroztik Vitoria-Gasteizko biztanleria bolumena hazi egin da.

Hazkunde hau, ordea, zazpi auzoei esker eman da

>> Azken hamarkadan, hiri-hazkundera eta etxebizitza eskuragarritasunak auzoen errealitate demografikoa eraldatu du modu sakonean. Belaunaldi arteko segregazio izugarria sortu da.


hiri-hazkundeak belaunaldi segregazio handia eragin du hiriburuan. Datu bat: Zabalgana, Salburua eta Aretxabaleta Gardelegi auzoetan gasteiztarren %16,4a bizi da egun, baina 30-44 urte bitarteko gasteiztarren ia erdia (%32,3) bertan bizi da.

Biztanleria osoaren banaketa (%)



Gainontzeko auzoak

30-44 urte bitarteko biztanleriaren banaketa (%)



Zabalgana, Salburua, Aretxabaleta Gardelegi

Epe luzeko ikuspegitik biztanleriaren banaketa hau ez da auzoen metabolismo demografikoarentzako osasungarria, ziklo iraunkorren ordez ziklo demografiko oso gorabeheratsuak sortzen dituelako. Hiri periferian egun bizi diren herritarren jatorrizko auzoetan hauen gabezia zahartze demografikoaren azkartzea (Gazalbiden, Pilarren, Arantzabelan, Aranbizkarran edo Santiagon oso modu nabarmenean) edo txikizkako merkataritza ehunaren galera eragiten duelako. Era berean, sortu berri diren hiri periferiako auzo horietan zahartze oso bortitza aurreikus daiteke hiruzpalau hamarkada barru, horrek eskatuko duen zerbitzu eta azpiegituren hedapenarekin.

>> Azken hamarkadan eragindako belaunaldi segregazioa egoera zailean utzi ditu urrezko auzo batzuk. Auzo horien iraunkortasunerako gerta zitekeen okerrenera gertatu da: biziberritzerako belaunaldi ordezkapen naturala erabat hautsi da

>> Hiru edo lau hamarkada barru, Salburua eta Zabalgana, seguruenik Aretxabaleta Gardelegin ere, zahartze prozesu bortitzak aurreikusi daitezke

30-44 urte bitarteko biztanleriaren presentzia (%). Vitoria-Gasteizko auzoak, 2015 urtea




Zahartzearen erradiografia, hortaz, aipaturiko fenomenoagatik oso baldintzatuta dago. Egun zahartze tasa oso altuak ematen dira auzo askotan, horien artean Gazalbide (%39), Pilar (%37,7), Zaramaga (%36,1) edo Txagorritxu (%35,6) buru direlarik. Ostera, haurren presentzia handia guraso gazteak izateko biztanleriaren presentzia indartsuaren eskutik etorri ohi da. Hala izanik, ez da harritzekoa haurren presentzia handiena egun Zabalganan (%23), Salburuan (%22,4) edo Aretxabaleta Gardelegin (%16,1) metatzea. Nolanahi ere, horietan ezezik Arriaga Lakuan (%21,9), Sansomendin (%20,7) eta Ali Gobeon (%16,7) ere haurren presentzia nabarmena da, behintzat hiriburuko testuingurua erreferentzia gisa hartzen badugu.

Aldiz, 14 urtetik beherako biztanleriaren presentzia oso urria da Santiagon (%6,7), Santa Lucian (%8),

>> Zahartze sakona bizi dute Vitoria-Gasteizko hainbat auzok, Gazalbide

Zahartze tasa handieneko auzoak



San Martinen (%8,6) edo Desamparados (%9,2) auzoetan. Azken honen salbuespenarekin, auzo hauetan gazteen (15-29 urte) presentzia garrantzitsua da egun, baina oso urrun daude gazte multzo hori bere tamainan mantentzeko egoeratik. Gazteen presentzia handiago edo txikiago izan, Vitoria-Gasteizen dauden 30 auzoen artean 23k ez dute egungo gazteen bolumena ordezkatzeko gaitasunik.

Honekin guztiarekin, Vitoria-Gasteiz osoan ez dago metabolismo demografiko orokorraren balorazioa gainditzen ez duen auzorik. Aintzat hartu behar da belaunaldi desberdinen presentzia handia edo txikia izan, metabolismo demografikoaren balorazio orokorrean hauen hiri mailako segregazio espaziala aintzat hartzen dela, hiriko errealitate orokorrarekiko ziklo demografiko iraunkorrak auzo guztietan bermatuta dauden neurtzeko. Zentzu horretan, badira gainditu arren balorazio apalak dituzten auzoak: Salburua, Zabalgana, Santiago, Gazalbide, Pilar, Txagorritxu eta Zaramaga dira hauek. Egoera orekatuagoa barnebiltzen dute, ordea, Abetxuko, Ali Gobeo, Ipar mendebaldeko landa eremua, Aretxabaleta Gardelegi, Alde Zaharra edo Ekialdeko landa eremua.

METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN ADIERAZLE PANELA. VITORIA-GASTEIZ.								
	Biztanleriaren fluxu joera 2011/15 epean (%)	Haurren presentzia (%)	Gazteen presentzia (%)	Gazteen ordezkatz ea (%)	30-44 urte bitarteko biztanleriaren presentzia (%)	Zaharren presentzia (%)	Zahartzearen abiadura 2011/15 epean (%)	Gainzahar tzearen feminizazio- maila (%)
Abetxuko	4,1	14,0	15,5	90,2	22,2	22,2	0,7	59,7
Ali Gobeo	5,3	16,7	12,3	135,6	21,5	20,9	-0,3	61,7
Ipar mend. landa e.	-3,2	15,4	13,2	116,0	20,2	19,2	3,8	59,0
Aretxabaleta Gard.	46,6	16,1	15,0	107,0	27,7	13,7	-4,5	55,6
Alde Zaharra	-8,3	11,6	13,5	85,6	27,4	18,7	0,9	63,9
Ekialdeko landa er.	-2,6	13,3	15,0	88,4	18,2	18,9	2,3	61,4
Arantzabela	0,9	9,6	13,9	68,8	17,7	21,3	8,9	54,8
Ariznabarra	-5,1	13,8	17,6	78,7	15,7	16,1	1,9	61,3
Sansomendi	-2,6	20,7	14,1	146,5	24,3	8,7	2,6	59,5
Ensanche (Zabalgunea)	-6,7	11,2	13,9	80,4	17,6	25,7	2,7	64,6
Aranbizkarra	-6,6	9,4	14,7	64,1	16,3	25,0	7,5	58,5
Adurtza	-9,5	9,9	15,4	64,5	17,4	25,6	2,8	57,9
Arriaga Lakua	1,4	21,9	12,5	175,8	28,6	9,0	2,4	57,8
Judimendi	-6,0	10,7	12,4	86,7	20,3	30,7	1,2	62,7
Coronación	-6,0	11,2	11,7	95,8	20,1	31,8	1,1	60,5
Santa Lucia	-7,8	8,0	16,9	47,4	13,6	20,8	4,9	58,3
Anglo	-5,4	10,3	11,7	88,5	19,7	30,4	2,9	61,1
Mendizorrotza	-4,5	12,1	16,8	72,3	13,0	25,5	4,9	61,2
Arana	-6,2	11,0	14,2	77,9	21,1	31,2	2,2	53,7
Lovaina	-6,1	11,1	14,0	79,3	16,3	26,1	3,6	69,1
San Cristobal	-7,0	9,6	12,3	78,1	18,2	31,8	5,7	58,5
Desamparados	-4,6	9,2	14,8	62,0	15,9	29,5	3,2	63,9
San Martin	-4,2	8,6	21,6	39,9	11,6	19,1	5,3	61,6
Zaramaga	-7,1	10,1	11,1	91,4	18,9	36,1	4,6	58,2
Txagorritxu	-3,9	10,4	11,7	88,7	15,9	35,6	4,8	59,6
Pilar	-5,4	9,3	11,2	82,5	18,2	37,7	9,1	56,7
Gazalbide	-6,7	9,3	12,2	76,2	13,7	39,0	10,0	59,7
Santiago	-10,0	6,7	16,9	39,7	13,0	27,9	7,0	54,7
Zabalgana	56,9	23,0	11,1	206,0	49,7	2,1	0,4	59,5
Salburua	53,2	22,4	12,8	175,6	48,0	2,6	-0,3	65,2
VITORIA-GASTEIZ	1,8	14,6	13,7	106,5	24,3	19,6	2,0	60,4



8. GIZARTE KOHESIOA

8.1. KONTZEPTUA

Auzo eta hiri baten gizarte kohesioa bere geografia barruan gertatzen den elkarrekintza sozialaren ondorioa da eta komunitatearekiko pertenezia edo atxikimendu mailan ikusten da zenbaterainokoa den. Adostasun komunitarioan oinarrituriko harremanak interes komuneko hiri ikuspegia dute abiapuntu, eta hiritar ororen jatorria, maila sozioekonomikoa edo formazio-maila edozein delarik ere, aukera eta eskubide berdintasuna aintzat hartzen ditu.

Illo horretan, gizarte kohesioa kuantifikatzeko helduleku interesgarria da zenbait parametroren segregazio geografikoa aztertzea. Jatorriari, formazio-mailari edo gainzahartzeari loturiko segregazio geografikoak gizarte-kohesioa higa dezakete hiri eta auzoetan. Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzaren presentzia ere gentrifikazioa (edo gentrifikazio arriskua) identifikatzeko elementutzat hartu izan da, bai eta adinekoentzako egoitzen presentzia zahartzearen adierazletzat hartzen den bezala.

8.2. GIZARTE KOHESIOAREN AUZO RANKINGA

GIZARTE KOHESIOAREN BALORAZIOA	
Ariznabarra	
Aranbizkarra	
Santa Lucia	
Ekialdeko landa eremua	
Santiago	
Arantzabela	
Txagorritxu	
Arriaga Lakua	
Gazalbide	
Anglo	
Sansomendi	
El Pilar	
Adurtza	
Desamparados	
San Martin	
Alde Zaharra	
San Cristobal	
Salburua	
Zabalgana	
Ali Gobeo	
Lovaina	
Ensanche	
Mendizorrotza	
Ipar mend. landa eremua	
Coronación	
Abetxuko	
Arana	
Judimendi	
Zaramaga	
Aretxabaleta Gardelegi	



8.3. GIZARTE KOHESIOAREN DIAGNOSTIKOA

Gizarte kohesioa modu askotan neur daiteke, eta dagokigun ikuspegi espazialek, komunitate baten kohesio maila bere nortasuna ezaugarritzen duten aldagaien geografiari erreparatzea aukera bat da. Biztanleriaren zenbait aldagaiek herritarren izaera sozial, ekonomiko edo kulturalaren gaineko erradiografia egiteko balio dute, eta ardatz hauetatik, komunitate baten kohesio maila ezagutu daiteke. Esaterako, herritarren jatorria, formazio maila, erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitzaren presentzia edo beste aldagai batzuen analisi espaziala lagungarria da.

Kohesioaren argazkiari lehen kolorea jartzeko biztanleriaren jatorria baliogarria da. Vitoria-

Gasteizen biztanleriaren %10a Europatik kanpo jaiotako herritarrak dira, baina auzo-arteko hauen banaketa ez da orekatua. Badira Alde Zaharra (%18,9), Coronacion (%17,3) edo Arana (%15,8) bezalako auzoak kopuru hori aise gainditzeko dutenak. Beste maila batean, Judimendi, (%14,7), Pilar (%14,3), Anglo (%13,4), Zaramaga (%12,7) edo Zabalgana (%12,3) metaketa nabarmena dute ere. Kontrakoz, Aretxabaleta Gardelegi (%3,2), San Martin (%4,3) edo Mendizorrotzan (%4,3) etorkinen presentzia oso ahula da. Auzoen adina eta etxebizitzaren eskuragarritasuna etorkinen banaketa espazial honi forma ematen diote maila handi batean.

Etxebizitza parkearen erabilerak auzoen gizarte kohesioa beste helduleku batetik kuantifikatzeko parada ere ematen du, erabilera iraunkorra ez duten etxebizitza ugarien presentzia gizarte kohesio




>> Alde Zaharra, Coronacion eta Arana etorkinen metaketa auzoak dira egun.

San Martinen edo Mendizorrotzan, ordea, etorkinen presentzia oso ahula da.

ahulago baten aztarna gisa ulertuta. Norabide honetan, aipatzekoak dira Aretxabaleta Gardelegiko kopuru handia (auzo berria eta 2011 urteko datuak izanik, ordutik egoera bestelakoa izan daiteke), hala nola Ekialdeko landa eremukoa eta Zabalgunekoa. Kasu hauetan, etxebizitza eskuragarritasun zailaren ondorio izan daiteke. Ali Gobeon (%16,3), Judimendin (%14,4), Alde Zaharrean (%14,2) eta Desamparadosen (%14,2) erabilera nagusi gabeko etxebizitza parkea handia da ere.

Erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitzak hiri-erdigunean (%).
Euskal hiriburuak



Arreta berezia merezi du Vitoria-Gasteizko Zabalgunea, hiri mailako errealitate orokorrarekiko (%7,5) erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitza proportzioa handia baita (%16,9). Fenomeno hau ere Euskal Herriko gainontzeko hiriburuetan gertatzen da, baina Bilbo, Iruña eta Baionako erdiguneek erabilera iraunkorrik gabeko etxebizitza proportzio apalagoak dauzkate. Azpimarratzekoa da Vitoria-Gasteizko Zabalgunea eta hiri-errealitatearekiko desoreka maila soilik Donostiak gainditzen duela.


Formazio-maila herritarren nortasun pertsonal eta kolektiboan garrantzitsua den beste ezaugarri bat da. Gasteiztarren %23,9k goi-formazioko ikasketak burutu ditu eta beste %6 batek ez ditu lehen mailako ikasketak burutu edo alfabetatu gabea da. Biztanleriaren formazio-mailaren gainean eragin handia izan ohi dute adina eta maila sozioekonomikoa bezalako aldagaiek eta horren adibidea da Vitoria-Gasteizko lau auzotan goi-formazioko biztanleriaren presentzia %38tik gorakoa izatea (Zabalgunea, Mendizorrotza, Ipar mendebaldeko landan eremuan eta Lovainan). Goi-formazioko

biztanleria urria da, ordea, Ali Gobeon, Aranan, Aranzizkarran eta Abetxukon. Azken auzo honetan, ikasketarik gabekoen presentzia handia dago, Zaramagan bezainbeste, eta Judimendin, Arana, Adurtza edo Pilarren ere fenomeno hau ematen da.

Zahartze demografikoaren itzala nabarmena da formazioaren hiri geografian horretan. Gainzahartzea (+75 urte) Vitoria-Gasteizen gero eta presenteago dagoen fenomeno demografikoa da. Gainzahartze tasak zahartzaroari loturiko menpekotasun egoera handienaren zertzelada interesgarria ematen du, nonbait adinari loturiko bizi kalitatearen apaltze joera (eta ongizate behar berriak) adin kohorte batean jarri behar bada behintzat. Orotara, 22.600 dira 75 urte edo gehiagoko gasteiztarak (%9,2).

Illo horretan, aipagarria da Judimendin (%19,3), Coronacionen (%18,6), Zaramagan (%17,4), Txagorritxun (%16,8), Gazalbiden (%16,6), Anglon (%16,6) eta Desamparadosen (%16,4) metatzen den gainzahartze maila. Fenomeno hau indar ahulagoarekin ere ageri da gainontzeko auzo gehienetan, baina badira gainzahartze oso txikia duten auzo gutxi batzuk ere, horien artean, Zabalgana, Salburua, Sansomendi eta Arriaga Lakua.

Gainzahartze tasa. Vitoria-Gasteizko auzoak, 2015 urtea.



Bada, hortaz, gainzahartze maila eta hiri-hazkundearen kronologiaren arteko korrelazioa, hiri berria eta zaharraren arteko kontraste eta desoreka argia. Dena den, ohikoa da halako fenomenoak gorpuztea hiri baten morfologian, nahiz eta hiri eta komunitate baten oreka higatzeko gaitasuna izan.

*>> Gainzahartze
demografikoaren eta hiri-
hazkundearen arteko korrelazio
argia dago, hiri berria eta*

Hiri geografiaren gainean, joeraz zentzu zabalean Vitoria-Gasteizko hiri erdigunea osatzen duten auzoetan gainzahartzea metatzen hasia da, hau da, Alde Zaharreak eta bere hiri-gerriko osoan (Zabalgunea, Lovaina, Coronacion, Zaramaga, Anglo, Judimendi eta Desamparados), hala nola 1960 eta 1970. hamarkadako hiri-hazkundean egituratutako beste auzo batzuetan ere. Azken hauek Arana, Adurtza, Abetxuko eta PGT delako zonaldea (Pilar, Gazalbide, Txagorritxu) dira, nagusiki.

Amaitzeko, gizarte kohesioaren argazkian sakontzeko interesgarria da gizarte eragileen ehun dentsitateari erreparatzea. Aipatu beharra dago gizarte eragileen eragin esparrua auzoa, hainbat auzo, hiriburu osoa edo haragokoa izan daitekeela, auzoen dinamikak ez direla hermetikoak. Ondorioz, oso nabaria da Alde Zaharrek hiri mailako gizarte eragileen kapitala metatzen duela.

*>> Alde Zaharrek hiri
mailako gizarte eragileen
kapital handia metatzen da*

Indar endogeno eta exogenoen elkarrekintza handia nozitzen duen auzoa da, alegia. Horixe bera gertatzen da modu apalagoan Zabalgunean, eta seguruenik, Lovainan ere.


Era berean, Mendizorrotzak kirol esparruko elkartegintza ehun handia kapitalizatzen du hiri mailan eta bertan diren kirol azpiegituren bueltan dinamismo sozial handia eragiteko gaitasuna dauka. Agerian diren hiri mailako gizarte ehunaren metaketak alde batera behintzat, Anglo, Ekialdeko eta Ipar-mendebaldeko landa eremua, San Martin, Adurtza, Gazalbide eta Abetxukok gizarte eragileen ehun dentsitate handia dute.

GIZARTE KOHESIOAREN ADIERAZLE PANELA. VITORIA-GASTEIZ.

	Europatik kanpo jaio den biztanleriare n presentzia (%)	Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzaren presentzia (%)	Gainzahartze- aren presentzia (%)	Gizarte eragileen ehun dentsitate- a (10.000 biztanleko)	Ikasketarik gabeko biztanleriare n presentzia (%)	Goi- formazioko biztanleriare n presentzia (%)	Adinekoentz- ako gizarte- etxeak	
Ariznabarra	7,9	5,3	8,3	15,4	5,0	21,3	2	
Aranbizkarra	10,1	6,0	9,7	18,0	5,3	10,2	1	
Santa Lucia	7,4	4,7	9,1	16,8	4,3	16,9	0	
Ekialdeko landa e.	4,8	28,6	9,7	46,3	5,1	18,2	0	
Santiago	6,4	6,0	11,8	11,6	6,5	22,4	0	
Arantzabela	8,0	5,8	6,2	6,7	5,9	14,0	0	
Txagorritxu	9,6	1,9	16,8	5,0	8,6	20,9	1	
Arriaga Lakua	7,5	3,6	3,1	13,3	3,9	22,3	4	
Gazalbide	6,1	6,8	16,6	30,4	4,9	29,2	0	
Anglo	13,4	11,4	16,6	50,3	3,9	17,6	0	
Sansomendi	7,6	5,2	3,0	6,2	5,2	13,8	1	
El Pilar	14,3	3,5	13,2	25,2	9,1	11,5	2	
Adurtza	9,9	13,9	13,9	31,0	9,6	12,6	1	
Desamparados	8,9	14,2	16,4	27,0	3,5	26,7	1	
San Martin	4,3	4,7	7,1	34,9	2,2	32,1	0	
Alde Zaharra	18,9	14,2	11,1	78,2	8,3	23,9	2	
San Cristobal	11,1	9,1	15,1	11,7	8,6	15,6	1	
Salburua	10,9	4,5	0,8	8,9	2,2	26,8	1	
Zabalgana	12,3	4,7	0,8	9,4	3,9	32,2	0	
Ali Gobeo	6,7	16,3	12,5	10,4	5,1	7,2	0	
Lovaina	7,6	12,2	14,2	34,7	2,6	38,1	1	
Ensanche	7,7	16,9	14,2	35,7	3,6	46,9	0	
Mendizorrotza	4,3	10,6	11,0	37,3	3,4	46,8	0	
Ipar mend. landa e.	6,2	13,2	9,3	32,1	0,0	39,2	0	
Coronación	17,3	9,3	18,6	25,1	8,6	19,5	2	
Abetxuko	8,8	6,2	13,7	29,6	14,7	10,9	2	
Arana	15,8	6,2	14,4	19,4	10,5	7,3	2	
Judimendi	14,7	14,4	19,3	24,8	11,0	16,4	2	
Zaramaga	12,7	4,7	17,4	24,4	14,9	11,5	2	
Aretxabaleta Gardelegi	3,2	42,4	7,1	15,0	0,0	0,0	0	
VITORIA-GASTEIZ	10,0	7,5	9,2	21,4	6,0	22,0	28	

0-1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

9. ERANSKINA: AUZOEN MUGAK



Iturria: INE. Ekoizpen propioa.